Era berean, ez dugu ahaztu behar Gipuzkoako Batzar Nagusiek ebazpen-proposamen bat onartu zutela iazko maiatzean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuari eskatu ziotela lurralde historikoko datu fiskalak eta katastrokoak emateko dagokien administrazioei, alokairuaren merkaturako erreferentziazko prezioen indize berriaren balioak kalkulatu ahal izateko.

Además, hay que recordar que las Juntas Generales de Gipuzkoa aprobaron en mayo del año pasado un propuesta de resolución instando al Departamento de Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa a proporcionar a las administraciones competentes los datos fiscales y del catastro del Territorio Histórico para poder calcular los valores del nuevo índice de precios de referencia para el

mercado del alquiler.

Bederatzi hilabete joan dira jada Batzar Nagusiek ebazpen hura onartu zutenetik, baina ez Donostiak ez eta lurraldeko beste udalerri batek berak ere ez du erreferentziazko indize hori aplikatzeko modurik izango, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du horretarako izan behar den informaziorik eman eta.

Han pasado ya nueve meses desde que las Juntas Generales aprobaron esa resolución, sin embargo, ni Donostia ni ningún otro municipio del territorio podrán aplicar el citado índice de referencia porque la Diputación Foral de Gipuzkoa no ha facilitado la información necesaria para ello.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOZIO ARRUNTA

MOCIÓN ORDINARIA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernuari eskatzen dio eman behar duen informazio guztia emateko agintari eskudunei, Donostia tentsio handiko eremu izendatutakoan hiriko alokairuetarako gehieneko prezioa eta tentsio handiko eremuetarako legerian jasotako gainerako neurriak ere aplikatu ahal izateko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa a que traslade toda la información necesaria a las autoridades competentes para que, una vez que Donostia sea declarada zona tensionada, pueda aplicar el precio máximo para los alquileres de la ciudad, así como el resto de medidas contenidas en la legislación que regula la citada zona tensionada.

Donostia, 2025eko otsailaren 7a.

Donostia, a 7 de febrero de 2025

Victor Lasa Briz
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea

Dr. Victor Lasa Briz
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia

Juan Carlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldearen bozeramailea”.

Juan Carlos Izagirre Hortelano
Portavoz del Grupo EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Victor Lasa Briz jaunak, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Kerman Orbegozo Uribe jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Victor Lasa Briz, D. Juan Karlos Izagirre Hortelano, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D. Kerman Orbegozo Uribe, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EAJ–PNV ETA PSE-EE TALDEEK 11. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ/PNV Y PSE-EE AL ASUNTO N.º 11:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 - PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**11. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 11:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (9) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 - PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

“Donostiako Udalbatzak, bi mila eta hogeita bosteko otsailaren hogeita seian egindako ohiko osoko bilkuran, gehiengoz onetsi zuen EH BILDU eta Elkarrekin Donostia taldeek batera aurkeztutako mozio arrunt hau, gune tentsionatuetan alokairuko erreferentzia-prezioak ezartzeari buruzkoa. Mozio horri EAJ/PNV eta PSE-EE Donostiako Sozialistak taldeek batera

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

“Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintisiete de febrero de dos mil veinticinco, aprobó, por mayoría, la siguiente Moción Ordinaria conjunta, presentada por los Grupos EH BILDU y Elkarrekin Donostia, sobre los precios de referencia de alquiler en zonas tensionadas, que incorpora una enmienda conjunta,

aurkeztutako zuzenketa egin zitzaion, erabaki-zatiko puntu lehen eta bakarra ordeztekoa. Hauxe da azkenean onetsitako testuak hitzez hitz dioena:

*Stop Desahucios, Alokairu eta Inquilino Azora plataformek idazki bat bidali diete udal taldeei, eta alokairuaren erreferentziazko prezioen indizeei buruzko mozio bat onartzeko eskatu dute.*

*Etxebizitza eskubidearen aldeko 12/2023 Legean jarritako baldintzak betetzen dituela eta, Donostia tentsio handiko eremu izendatzeko eskatu zion Udal Gobernuak Eusko Jaurlaritzari. Izendapen hori apirilean izango da, Etxebizitza sailburu Denis Itxasoren adierazpenen arabera.*

*Gogoan izan behar dugu tentsio handiko eremu izendatzeko egin zen diagnostikoak adierazten duela 311 etxejabe handi izan daitezkeela Donostian: 77 pertsona juridiko, 1.079 etxebizitza dituztenak; 224 pertsona fisiko, 1.871 etxebizitza dituztenak, eta beste 10, 67 etxebizitza dituztenak. Pertsona juridikoetan, nabarmen ageri dira Azora funtsa (320 etxebizitza) eta Testa- Blackstone (750 etxebizitza, BOE kalifikazioa 2028ko uztailera arte dutenak).*

*Erreferentziazko prezioak aplikatu ahal izateko, ordea, informazio jakin bat eman behar dio Gipuzkoako Foru Ogasunak Etxebizitzako eta Hiri Agendako Ministerioari, hirian aplikatu behar den erreferentziazko prezioen indizea onartzeko gero hark.*

*Era berean, ez dugu ahaztu behar Gipuzkoako*

presentada por los Grupos EAJ/PNV y Socialistas Donostiarras PSE-EE, de sustitución del punto primero y único de la parte dispositiva, siendo el texto aprobado literalmente como sigue:

*Las plataformas Stop Desahucios, Alokairu e Inquilino Azora han remitido un escrito solicitando a las grupos municipales la aprobación de una moción en relación con los índices de precios de referencia para el alquiler.*

*El gobierno municipal ha solicitado la Gobierno vasco la declaración de la ciudad como zona tensionda, dado que cumple con los requisitos establecidos en la Ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda para ello. Una declaración que se producirá en el mes de abril, según declaraciones del Consejero de Vivienda, Sr. Itxaso.*

*Hay que recordar que el Diagnóstico elaborado para la declaración de zona tensionada, informa de que en Donostia hay 311 potenciales grandes tenedores de vivienda: 77 personas jurídicas con 1.079 viviendas; 224 personas físicas con 1.871 viviendas y otras 10 con 67 viviendas. Entre las personas jurídicas, destacan el fondo Azora con 320 viviendas y Testa-Blackstone con 750 (con calificación de VPO hasta julio de 2028).*

*No obstante, para poder aplicar los precios de referencia es imprescindible que la Hacienda Foral de Gipuzkoa traslade determinada información al Ministerio de Vivienda y Agenda Urbana para que éste apruebe el Índice de Precios de Referencia a aplicar en la ciudad.*

*Además, hay que recordar que las Juntas*

*Batzar Nagusiek ebazpen-proposamen bat onartu zutela iazko maiatzean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuari eskatu ziotela lurralde historikoko datu fiskalak eta katastrokoak emateko dagokien administrazioei, alokairuaren merkaturako erreferentziazko prezioen indize berriaren balioak kalkulatu ahal izateko.*

*Bederatzi hilabete joan dira jada Batzar Nagusiek ebazpen hura onartu zutenetik, baina ez Donostiak ez eta lurraldeko beste udalerri batek berak ere ez du erreferentziazko indize hori aplikatzeko modurik izango, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du horretarako izan behar den informaziorik eman eta.*

*Hori dela eta, hauxe da gure*

*MOZIOA ARRUNTA*

*1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio lanean jarrai dezala, eskumena duten eragile instituzional guztiekin lankidetzan, alokairuaren erreferentziazko prezioen indizea ahalik eta lasterren egiteko, eta, hala badagokio, Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unean, Donostia udalerri tentsionatutzat jotzen duen Eusko Jaurlaritzaren Aginduarekin batera". ======================================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, sinaduraren egunean.

*Generales de Gipuzkoa aprobaron en mayo del año pasado un propuesta de resolución instando al Departamento de Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa a proporcionar a las administraciones competentes los datos fiscales y del catastro del Territorio Histórico para poder calcular los valores del nuevo índice de precios de referencia para el mercado del alquiler.*

*Han pasado ya nueve meses desde que las Juntas Generales aprobaron esa resolución, sin embargo, ni Donostia ni ningún otro municipio del territorio podrán aplicar el citado índice de referencia porque la Diputación Foral de Gipuzkoa no ha facilitado la información necesaria para ello.*

*Por todo ello, presentamos la siguiente:*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a continuar trabajando, en colaboración con todos los agentes institucionales competentes, en la elaboración de un índice de precios de referencia del alquiler que pueda estar operativo en la mayor brevedad posible, y en su caso en el momento de la publicación en el Boletín Oficial junto con la Orden del Gobierno Vasco que declare a San Sebastián municipio tensionado". ==================================*

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación , visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de firma.

ALKATEAK O. E. /

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso".

---------------

II.2

KONTROL MOZIOAK

**II.2.1. Kontrol Mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, inausketa-praktikei buruzkoa.**

"Elkarrekin Donostia udaleko talde mistoaren bozeramaile Victor Lasak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, GUNE PUBLIKO ETA MUGIKORTASUN BATZORDEAN Carlos Garciari Donostian egiten diren inausketa praktikak eta haiek Zuhaiztien Plan Zuzentzailearekin bat izateaz egindako INTERPELAZIOAren ondorioz

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Zuhaiztien Plan Zuzentzaileak irizpide argiak ezartzen ditu hiriko zuhaitzak inausteko, eta adierazten du behar-beharrezkoak direnean bakarrik egin behar direla kimaketak, eta saihestu egin behar direla zuhaitzaren egitura naturalari kalte egiteko moduko esku-hartze sistematikoak. Batez ere inausketa handi eta errepikakorrik ez egitea aholkatzen du.

II.2

MOCIONES DE CONTROL

**II.2.1. Moción de Control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre las prácticas de poda.**

"Dr. Víctor Lasa, Portavoz del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL derivada de la INTERPELACIÓN al Concejal de Mantenimiento, Sr. García, para su tratamiento en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO Y MOVILIDAD, relativa a la práctica de poda en Donostia y su alineación con el Plan Director de Arbolado.

JUSTIFICACIÓN

El Plan Director de Arbolado de Donostia establece criterios claros sobre las podas urbanas, señalando que estas deben realizarse solo cuando sea estrictamente necesario y evitando intervenciones sistemáticas que puedan dañar la estructura natural del árbol. En particular, se desaconsejan las podas drásticas y repetitivas.

Hala eta guztiz ere, hiriko hainbat zuhaitz-espezietan aldizkako inausketak sistematikoki egiteko praktikarekin segitzen da Donostian, eta litekeena da Zuhaiztien Plan Zuzentzailearen gomendio teknikoen aurka joatea hori. Gainera, gastu bat ere bada, hiriak aurreztu eta beste eremu batzuetan erabili behar lukeena. Egoera horrek zalantzak sortzen ditu Udalak egiten duen hiriko zuhaitzen kudeaketaz eta gomendatutako irizpide zientifikoen aplikazioaz.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio berriz begiratzeko hiriko zuhaitz-azpiegituran aldizkako inausketarik egin beharrik den, eta ziurtatzeko inausketa horiek Zuhaiztien Plan Zuzentzailean oinarritutako irizpide zientifiko eta teknikoetara egokitzen direla.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio txosten tekniko bat aurkezteko, hiriko zuhaitz-azpiegituran egindako inausketen maiztasuna justifikatuko duena, zuhaitz bakoitzaren berariazko azterketa ere eginda, mantentze jasangarriarekin bateragarria den ikusteko.

3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio ez aldatzeko orain den hiri-zuhaitzen azpiegiturarik -inausketa murrizteko hartara-, baizik eta behar ez diren aldizkako inausketak uzteko betiko, egoera berrira egokitzeko.

A pesar de ello, en Donostia se mantiene la práctica de realizar podas periódicas de manera sistemática en diversas especies de arbolado urbano, lo que podría contradecir las recomendaciones técnicas del propio Plan Director de Arbolado. Además, supone un coste que la ciudad debería estar ahorrándose y aplicando en otras áreas. Esta situación genera dudas sobre la gestión municipal del arbolado urbano y la aplicación de los criterios científicos recomendados.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a revisar la necesidad de realizar podas periódicas en la infraestructura arbórea urbana, asegurando que estas se ajusten a criterios científicos y técnicos basados en el Plan Director de Arbolado.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a presentar un informe técnico justificando la frecuencia de las podas realizadas en la infraestructura arbórea urbana, incluyendo un análisis específico para cada árbol sobre su compatibilidad con el mantenimiento sostenible.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a no sustituir la infraestructura arbórea urbana actual con el propósito de reducir la poda, sino a adaptarla a una nueva situación de interrupción permanente de las podas periódicas innecesarias.

4. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio behin betiko uzteko Zuhaiztien Plan Zuzentzailearen arabera justifikatu gabe dauden zuhaitz-azpiegituren aldizkako inausketa guztiak.

Donostia, 2025eko Otsailaren 19an

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea".

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a cesar permanentemente todas aquellas podas periódicas de infraestructura arbórea que no estén justificadas según el Plan Director de Arbolado.

Donostia, a 19 de Febrero de 2025

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia."

Eztabaida hasita, Victor Lasa Briz jaunak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Carlos Garcia Hernandez jaunak eta Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Victor Lasa Briz, D. Jorge Mota Iglesias, D. Carlos García Hernández y D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (8) EH BILDU; (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 - (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (8) EH BILDU; (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 - (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, ustezko sexu-jazarpen kasu bati buruzkoa.**

**KENDUA**

**II.2.2. Moción de Control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre un presunto caso de acoso sexual.**

**RETIRADA**

---------------

**II.2.3. Kontrol Mozioa, PP Taldeak aurkeztua, hiriko kokalekuei buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluaren babesean, KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) hiriko kokalekuen inguruan egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gero eta kokaleku gehiago ikusten ditugu hirian, gero eta pertsona gehiago bizi dira Donostiako infraetxetan, eta ez dirudi gobernu-taldea hori saihesteko gai denik. Egia da noizean behin kokalekuren bat husten dela, baina horren ondorioz, bertan bizi direnak beste kokaleku bat sortzera bultzatzen dituzte.

Segurtasuneko zinegotziak batzordean ziurtatu zuen ahal duen guztia egiten duela, baina ebidentziak iradokitzen du hori ez dela nahikoa. Zinegotzi ordezkariaren hitzetan, arazoa jardutea eta jendea kokalekuetatik irtenaraztea baino konplexuagoa da, eta berarekin ados gaude: konponbidea ez da soilik poliziaren ekintza eta jendea handik ateratzea izan behar. Udalak gizarte-zerbitzuen bitartez ere jardungo du, ez bakarrik kokaleku horietako biztanleen osasungarritasuna eta gizarte- eta osasun-arreta bermatzeko, baizik eta baita kokalekuak ez sortu eta ez hedatzeko

**II.2.3. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre asentamientos en la ciudad.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre asentamientos.

JUSTIFICACIÓN

Cada vez vemos más asentamientos en la ciudad, cada vez más personas viven en infraviviendas en San Sebastián sin que el Equipo de Gobierno parezca ser capaz de evitarlo. Es verdad que de vez en cuando se desaloja algún asentamiento, pero sólo para empujar a sus moradores a crear otro.

El Concejal de Seguridad aseguró en comisión que hace todo lo que puede, la evidencia sugiere que no es suficiente. Aseguraba, textualmente, que el problema es más complejo que actuar y desalojar, y estamos de acuerdo que la solución no pasa únicamente por la acción policial y el desalojo. Entendemos que el Ayuntamiento actuará también a través de los servicios sociales, no sólo para garantizar la salubridad y la atención socio sanitaria de los habitantes de esos asentamientos, si no también para evitar su creación y propagación.

ere.

Horregatik, behean sinatzen duenak honako hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio egoera aztertu eta txosten bat egin dezala, oposizioko taldeekin partekatu beharko duena, Donostian legez kanpoko kokaleku eta infraetxe gero eta gehiago zergatik dagoen azaltzen duena.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio azter ditzala Donostian kokaleku eta infraetxe horiek ezabatzeko biderik eraginkorrenak.

Donostia, 2025eko otsailaren 21a

Borja Corominas Fisas,
Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea”.

Estas son las razones por las que presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a estudiar, y elaborar un informe que deberá compartir con los grupos de la oposición, las causas por las que cada vez hay más asentamientos ilegales e infraviviendas en San Sebastián.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a estudiar las vías más efectivas para eliminar estos asentamientos e infraviviendas en la ciudad de San Sebastián.

En San Sebastián, a 21 de febrero de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del grupo municipal del Partido Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Victor Lasa Briz jaunak, Martin Ibabe Eceiza jaunak eta Izar Hernando Ibero andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Borja Corominas Fisas, D. Victor Lasa Briz, D. Martin Ibabe Eceiza y D.ª Izar Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 - PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 23 - (9) EAJ/PNV, (8)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 - PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 23 - (9) EAJ/PNV, (8)**

**EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**EH BILDU, (5) PSE-EE, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.4. Kontrol Mozioa, PP Taldeak aurkeztua, "Villa Maria del Carmen"-i buruzkoa.**

**KENDUA**

**II.2.4. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre "Villa Maria del Carmen".**

**RETIRADA**

---------------

10740n XVII

**II.2.5. Kontrol Mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Amara auzoko mugikortasunari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Amara auzoko mugikortasunari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean interpelatuta, Mugikortasuneko zinegotziak ezin izan zuen baieztatu Amara auzoko obrek trafiko- eta mugikortasun-fluxuan duten inpaktuari buruzko aldez aurreko azterketarik egin den. Amara Berriko espazio publikoa aktibatzeko eta hobetzeko plana aipatu zuen, 2018an diseinatua. Plan horrek, ordea, ez du ezer esaten auzoa gaur egun jasaten ari den

**II.2.5. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre movilidad en el barrio de Amara.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre movilidad barrio de Amara.

JUSTIFICACIÓN

Interpelada en comisión, la concejala de movilidad fue incapaz de confirmar si se han elaborado estudios previos del impacto en el flujo de tráfico y movilidad de las obras en el barrio de Amara. Mencionó el Plan de Activación y Mejora del Espacio Público de Amara Berri (PAM) diseñado en el 2018, plan que no aclara ninguno de los principales

inpaktu nagusiei buruz.

Mugikortasun-atalaren ezaugarria, azken urteotan, plangintza falta kezkagarria izan da, eta donostiarren sentsazioa da ez dagoela erdialdera sartzea debekatzeaz harago doan planik. IGEak auzo periferikoetan duen inpaktua, obrek auzoetako eta hiri osoko mugikortasunean dituzten inpaktuak ez dira inoiz kontuan hartu azterlan enpirikoen bidez.

Hori dela eta, hau da nire

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio aurkez ditzala administrazioek Amara auzoko obra publikoak diseinatzeko eta garatzeko oinarritzat hartu dituzten mugikortasun-inpaktuaren gaineko azterlan guztiak.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio aurkez ditzala administrazioek Donostiako edo hiriko edozein auzotako obra publikoak diseinatzeko eta garatzeko oinarritzat hartu dituzten mugikortasun-inpaktuaren gaineko azterlan guztiak.

Donostia, 2025eko otsailaren 21a

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularra udal-taldearen bozeramailea.”

impactos que el barrio está sufriendo actualmente.

El departamento de movilidad se ha caracterizado durante los últimos años por una preocupante falta de planificación y la sensación que tienen la ciudadanía donostiarra es que no hay un plan más allá de prohibir a los donostiarras acceder al Centro. Los impactos de la ZBE en los barrios periféricos, los impactos de las obras en la movilidad de los barrios y del conjunto de la ciudad, no se han contemplado en ningún momento a través de estudios empíricos.

Estas son las razones por las que presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a presentar todos los estudios de impacto en la movilidad en los que hayan basado el diseño y desarrollo de las obras públicas de cualquier administración en el barrio de Amara.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a presentar todos los estudios de impacto en la movilidad en los que hayan basado el diseño y desarrollo de las obras públicas de cualquier administración en Donostia-San Sebastián o en cualquiera de sus barrios.

En San Sebastián, a 21 de febrero de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del grupo municipal del Partido Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Victor Lasa Briz jaunak, Olatz Yarza Garagorri andreak eta Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Borja Corominas Fisas, D. Victor Lasa Briz, D.ª Olatz Yarza Garagorri eta Garbiñe Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 - (8) EH BILDU, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 - (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 - (8) EH BILDU, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 - (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.6. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Empark enpresako 4 langile kaleratuak izanari buruzkoa.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko otsailaren 17an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2024ko urrian jada salatu genuen Emparkeko langileen lan-baldintzak kaxkarrak zirela eta enpresak pleguetan bete behar diren baldintzetako batzuk ez dituela betetzen.

**II.2.6. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el despido de 4 trabajadores de la empresa Empark**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada el 17 de febrero de 2025 en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

En octubre de 2024 ya denunciamos las precarias condiciones laborales de las y los trabajadores de Empark indicaban que la empresa no cumplía con algunas de las obligaciones establecidas en los pliegos.

Aipatu genion Udal Gobernuari pleguetako baldintza batzuk betetzen ez direnaren zantzuak genituela, hizkuntzaren kudeaketan, segurtasunean, azpikontratazioan eta mantenuan besteak beste, eta hortaz, horiek berrikustea eta betearaztea zegokiola Udal Gobernuari.

Indicamos al Gobierno Municipal que teníamos indicios del incumplimiento de algunas de las condiciones de los pliegos, como por ejemplo la gestión lingüística, la seguridad, la subcontratación y el mantenimiento, por lo que les recordamos que correspondía al Gobierno Municipal revisarlas y garantizar su cumplimiento.

Hala ere, Udal Gobernuak enpresak pleguen baldintzetan ezarritakoa betetzen zuela ziurtatu zuen eta adierazi zigun, ez betetzeren bat ikusten zuenean egoera hori konpontzera behartuko zuela enpresa.

Sin embargo, el Ayuntamiento aseguró que, en general, la empresa cumplía con lo establecido en los pliegos y nos manifestó que, en caso de incumplimiento, obligaría a la empresa a solucionar la situación.

Horrekin nahikoa ez, eta oraingoan jakin dugu Emparkeko 4 langile kaleratuak izan direla. Enpresak hori egiteko aipatu dituen arrazoiak izan dira segurtasunerako langileak kontratatu behar izan dituztela eta hortaz, arazo ekonomikoak dituztela bestelako langileak mantentzeko.

Pues, si esto fuera poco, recientemente hemos sabido que 4 personas trabajadoras de Empark han sido despedidas. El motivo esgrimido por la empresa ha sido que ha tenido que contratar personal de seguridad y que, en consecuencia, tiene problemas económicos para el mantenimiento del resto de la plantilla.

Segurtasuna sartu dute Katalunia Plazan, Okendon eta Kontxan gaueko 23:00 – 07:00.

Ha establecido personal de seguridad en los parkings de plaza de Cataluña, Okendo y La Concha, en horario de 23:00 a 07:00.

Eta esan digutenaren arabera, aparkalekuetako segurtasuna bermatzeko, langileek kabinan egon behar dute, gauez hiru txanda egin behar dituzte oinez, lotan ikusten dituztenak kaleratu behar dituzte eta susmagarriei txartela eskatu behar diete.

Según nos indican, para garantizar la seguridad de los parkings, este personal debe permanecer en la cabina, realizar tres rondas a pie, expulsar a las personas que ven durmiendo y solicitar la tarjeta a aquellas que resulten sospechosas.

Segurtasuneko langile hauek kontratatzeak, hainbat aldaketa ekarri ditu aparkalekuen zerbitzuan.

La contratación de este personal de seguridad ha supuesto una serie de modificaciones en los servicios de los parkings.

Esaterako, Atotxako aparkalekuan asteazkenetako eta ostegunetako 12:00etatik

Por ejemplo, en el parking de Atotxa han eliminado el turno de 12:00 a 20:00 de los

20:00etara bitarteko txanda kendu da, eta soilik ostiraletakoa mantendu da. Eta Kontxako 12:00-20:00 bitarteko beste langile baten txanda ere kendu da.

Bulebarreko gaueko txanda da soilik mantendu dena, eta hortaz, langile bakar hori arduratu beharko da Madriletik artatu ezin diren bezeroez eta bestelako arazoez gainerako beste 5 aparkalekuetan ere (Okendo, Katalunia Plaza, Atotxa, Kontxa eta Easo). Langile horrek esaterako, 6 aparkalekuetakoren batean gerta daitezkeen hesien hausturak edo ez irekitzea konpondu beharko du, makinen matxurak, kutxazainak eta antzeko gorabeherak kudeatu ere.

Horrez gain, orain arte gauez egiten zen garbiketa ez da egingo, gauean garbiketa-txandarik ez baitago.

Azken finean, kaleratutako langileek egiten zituzten eginkizunak, egin gabe geratuko dira. Honen guztiaren berri eman genion zinegotzi arduradunari azkeneko batzordean. Langileen kaleratzearen berri bazuela jakinarazi zigun eta haien ordezkari batekin ere bilera egiteko asmoa. Baina batzorde berean jakin ahal izan genuen, Empark enpresak neurri hau ezarri eta gero eman ziola Udal Gobernuari horien berri, eta orduan kaleratzeak eman eta gero Udal Gobernuak neurri honen azterketa egingo duela.

Argi dago, batetik zerbitzuaren kalitatea betetzen ez denaren adibideak ditugula, eta bestetik Empark enpresak pleguak betetzen ez

miércoles y jueves, manteniendo únicamente el de los viernes. Y se ha suprimido también el turno de 12:00 a 20:00 de otro/a trabajador/a del parking de La Concha.

El turno de noche se mantiene exclusivamente en el parking del Boulevard, por lo que esta persona queda como única encargada de gestionar tanto la clientela que no pueda ser atendida desde Madrid y como el resto de los problemas que puedan surgir tanto en los aparcamientos del Boulevard como en los otros 5 aparcamientos subterráneos (Okendo, Plaza de Cataluña, Atotxa, La Concha y Easo). Por tanto, esta persona deberá solucionar las posibles averías o no aperturas que pueda haber en las barreras de los 6 parkings subterráneos, además de las posibles averías en las máquinas, cajeros y resto de incidencias.

Además, no se realizará la limpieza que hasta ahora se realizaba por la noche, ya que no hay turno de limpieza en el turno nocturno.

En consecuencia, las funciones que realizaba el personal despedido quedarán sin ser llevadas a cabo. De todo ello se informó a la concejala responsable en la última comisión. Nos comunicó que conocía el despido de estas personas y que tenía la intención de reunirse con la representación sindical. Pero en la misma comisión tuvimos conocimiento de que Empark comunicó esta medida al Gobierno Municipal una vez la tenía ya implantada y que, por tanto, el análisis de dicha medida por parte del Gobierno Municipal sería posterior a los despidos.

Es evidente que tenemos ejemplos de incumplimientos en cuanto a la calidad del servicio, además de indicios de incumplimiento

dituenaren bestelako zantzuak ere bai.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari baldintza teknikoen eta administratiboen pleguaren betetze-mailari buruzko auditoretza egin dezala, eta haren ondorioen arabera neurri egokiak har daitezela.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari lurpeko aparkalekuak pixkanaka publifikatzeko aukerak aztertuko dituen lantalde bat osa dezala.

Donostian, 2025eko otsailaren 21ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

de los pliegos por parte de la empresa Empark.

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno de la Corporación de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a realizar una auditoría sobre el grado de cumplimiento del pliego de condiciones técnicas y administrativas y que en función de sus conclusiones se adopten las medidas oportunas.

2. El Pleno de la Corporación de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a constituir un grupo de trabajo que estudie la posibilidad de publificar progresivamente los aparcamientos subterráneos.

San Sebastián, 21 de febrero de 2025

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Victor Lasa Briz jaunak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Olatz Yarza Garragorri andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, D. Victor Lasa Briz, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 - (8) EH BILDU, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 - (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 - (8) EH BILDU, (3) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 - (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

**6. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 - (8) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 - (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 - (8) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 - (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.7. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Martutene auzoa eta Barkaiztegi lotzeko trenbide gaineko pasabideari buruzkoa.**

“Juan Carlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko otsailaren 17an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.7. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el paso superior del ferrocarril entre el barrio de Martutene y Barkaiztegi.**

“Juan Carlos Izagirre Hortelano, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada el 17 de febrero de 2025 en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

2021eko maiatzean itxi zen Martutene Pasabidetik Barkaiztegira doan errepidea, ADIFek trenaren pasagunean egin behar dituen obrak direla eta. Udaletxearekin sinatutako hitzarmenak lehen fase bat jasotzen zuen behin-behineko soluzioa planteatuz sortzen zen trafikoa-arazoari, eta bigarren fasea bi urtetako epean behin betiko soluzioa nolakoa izango zen zehazten zuena.

En mayo de 2021, se procedió al cierre de la carretera que va desde el paseo de Martutene a Barkaiztegi, como consecuencia de las obras que ADIF iba a ejecutar en el paso a nivel existente en la zona. El convenio firmado con el Ayuntamiento contemplaba dos fases: en la primera se planteaba una solución provisional al problema de tráfico que presenta la citada zona, y en la segunda se definía la solución definitiva que se preveía dar a este ámbito en el plazo de dos años.

Orduz geroztik, trafiko arazotik haratago oinezkoentzako arazo larria sortu da Barkaiztegi eta Martutene arteko lotura oso luzea eta arriskutsua baita. Ibilgailuekin partekatu behar dute errepide eskas bat, ez espaloi eta ezta argirik ere ez duena eta, gainera, buelta oso handia egin behar dutena. Hau gutxi balitz, arazoari bertan bizi diren herritar asko adinekoak direla gehitzen zaio.

Desde entonces, además del problema de tráfico existente, ha surgido un grave problema para la circulación peatonal, ya que la conexión entre Barkaiztegi y Martutene es muy larga y peligrosa. Se trata de una vía estrecha, sin acera y sin iluminación, utilizada tanto por vehículos como por peatones, que obliga a dar un gran rodeo. A esto hay que añadir que muchas de las personas que viven en esta zona son personas mayores, lo que complica aún más la situación.

2021eko azaroan Udal Gobernuak pasabide bat egitea onartu zuen trenbide gainean arazo honi irtenbidea emateko. Alkatearen hitzetan “urte bete eta zerbaitetan” egina egongo zen pasabide hau. Gaur da eguna oraindik pasabidearen berririk ez daukaguna.

En noviembre de 2021, el Gobierno municipal aprobó la construcción de una pasarela para dar solución a este problema. En palabras del alcalde, la previsión era que estuviera ejecutada en "año y pico". A día de hoy, todavía no tenemos noticias de ella.

Egoera honen aurrean bertako auzotarrek bere kezka adierazi digute behin eta berriz, eta arazoa Udaletxeko ordezkariei eta publikoki salatu izan dute, baina ez da konponbiderik eman.

Ante esta situación, vecinos y vecinas de la zona nos han trasladado reiteradamente su inquietud; sin embargo, a pesar de que han denunciado el problema tanto a la representación municipal como de manera pública, aún no se les ha dado una solución.

Gune Publikoetako Batzordean ez dela aurreikusten oinezkoentzako trenbide gaineko pasabiderik egitea esan ziguten, ez behintzat

En la Comisión de Espacio Público se nos comunicó que no se prevé la realización de una pasarela peatonal sobre las vías del tren,

ADIFek trenaren pasagunean egin behar duen obra egin arte, eta hau ez da 2026a baino lehenago hasiko.

Bertan bizi diren auzotarrei bi lan hauek modu independentean egingo zirela esan zitzaien, eta 2022rako oinezkoen pasabidea egina egongo zela. Beste obra, pasabidearena, beranduago egingo zela.

Urgentziazko gaia dela deritzogu, ez baita onargarria Barkaiztegitik Martutenera joateko 30 minutuko ibilbidea egin behar izatea bide arriskutsu batetik.

Gainera, publikoki 2021ean pasabide hau urtebeteko epean egingo zela agindu zitzaien.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

